

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1102

EBAZPENA, 2015ko martxoaren 2koa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria, zeinarekin jendurrean jartzen baita ondoko izendapena: Armañón (ES2130001), Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2015eko otsailaren 27ko Aginduaren bitartez, zera erabaki da: Armañón (ES2130001) Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) izendapenari behin behineko onarpena ematea.

Xedapen Orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikuluekin eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bategineko 22.2 artikuluekin bat etorriaz, administrazioen eta ingurumena babesteko helburu duten irabazte-asmorik gabeko erakundeentzuzunaldi-izapideak egin behar dira eta jendurrean jarri eremuen izendapenak, lekuen kartografia mugapenarekin, izendapenak justifikatzen dituzten batasunaren intereseko habitat motek eta flora eta fauna espezieak, euren kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekuak kontserbatzeko helburuak eta arauak, eta jarraipen programak.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Jendurrean jartzea honako izendapen hau: Armañón (ES2130001) Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea; jendurrean jarriko da, EHAA n iragarki hau argitaratu eta biharamunetik 2015eko maiatzaren 6a arte; epe horretan, egoki irizten dien alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.— Goragoko paragrafotan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da bai egoitza elektronikoan: www.euskadi.net/natura2000, bai EA Eko Administrazio Orokorren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza, herritarrak atenditzeko ordutegian, helbide honetan:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Eusko Jaurlaritza.
Donostia kalea, 1.
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2015ko martxoaren 2a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.